

# Irudikak *Contrapelo* aurkezten du, 2022ko ediziora bertaratu ziren bederatzi pertsonen topaketatik sortutako fanzinea

2022an ospatu zen Irudika topaketaren seigarren ediziora bertaratu ziren bederatzi ilustratzailek hiru egunez izandako esperientzia fanzine batean islatu dute. Datorren ostegunean, ekainaren 29an, ekitaldirako formatu berezi batekin sortutako fanzinearen lehen edizioa aurkeztuko da eta ekitaldi bikoitza izango dugu. Batetik, 18:00etan irekiko den ilustrazioen erakusketa Mara Mara liburu-dendan eta bestetik, hitzaldi bat haren bi egilerekin 19:00etan Zuloa liburu-dendan. Fanzinea salgai egongo da bi tokietan eta Irudika 2023ra bertaratzen direnei ematen zaien ongi etorri sortan oparituko da.

Ilustrazioaren nazioarteko topaketa profesionalak ilustrazioko, argialetxeetako eta liburuaren munduko 150 profesional eta eragile baino gehiago batzen ditu urtero. Irudikaren helburuetako bat, ezagutzarako oinarri gisa, bertaratzen direnen arteko harremana sortzea da. Irudikako lantaldeak 2022ko abenduaren erdialdean sare sozialen bidez izan zuen *Contrapelo* fanzinearen berri eta 2017an topaketa hasi zenetik, 7 lan urte horietan jasotako oparirik onena bihurtu zen.

Irudikako antolakuntzak oparia itzultzeko fanzinea editatzea erabaki zuen, topaketak bertaratzen direnen artean sustatzen duen ikaskuntza kolektiboaren isla gisa. *Contrapelo* bederatzi irudigilek topaketaren azken edizioan izan zuten esperientzia kontatzen duten eguneroko laburra da.

Fanzinea Teal kolorean eta paper zurian inprimatu da, paper gris eta tinta gorriarekin konbinatuz. Bilboko Another Press inprimategian egin dute. Paper urdinezko estalkiak eta artisau azalak ditu: janari-denda zahar batean tolestu eta Uribarri kaleko Tere jostunak josi ditu hari gorriarekin. 500 aleko edizioa egin da eta hautetako 200, 7. edizioko parte-hartzaileei emango zaizkie. 120 baino ez dira salgai egongo online eta Gasteizko Zuloa eta Mara Mara liburu-dendetan. Gainerako aleak egileentzat erreserbatuko dira.

Ekainaren 29an Mara Mara eta Zuloan egingo diren aurkezpenetan egongo diren egileen biografia txiki bat uzten dizuegu:

**Javigaar** irudigilea Badalonan (Bartzelona) jaio zen 1981ean. Txikitatik marrazten du, baina 2007an ekin zion ibilbide profesionalari marrazkia erraminta gisa erabiliz. Zenbait alorretan ibili da, argialetxeentzako ilustrazioan, bideojokoetarako animazioan, irudi albumean, muralen margogintzan, *visual thinking*-ean, komikietan eta abarreak esaterako. Bere lanak lotura estua izan du beti hezkuntzarekin, komunikazioarekin eta kulturarekin. Irudigile-jarduera web-programazioarekin bateratzen du eta ilustrazio-ikastaroak ematen dizkie haurrei, gazteei eta helduei. Marrazketa sozializazio-tresna bikaina dela uste du.

**David Marto** komiki marrazkilaria da, Toledon jaioa, eta txikitik *plastidecor* margoa eskutan jarri ziotenetik ari da marrazten. Arte Ederrak eta animazioko zenbait ikasketa egin zituen, serigrafia maite du eta motxilan koaderno bat darama beti. Ediciones SM argialetxean, Reina Sofía museoko dendan eta SOS Refugiados erakundearen lan egina du. «Mateo pierde su boca» haurrentzako komikia ere editatu du eta datorren urtean argitaratuko den beste haur-komiki batean dabil lanean.

## **CONTRAPELO FANZINEAREN aurkezpena**

Ekainak 29, osteguna

Vitoria-Gasteiz

18:00etan Erakusketaren inaugurazioa Mara Mara Liburuak liburu-dendan

19:00etan Fanzinea aurkezteko topaketa Javigaar eta David Marto artistekin

Informazio gehiago eta elkarrizketak: [media@irudika.eus](mailto:media@irudika.eus) / 658703151